



ARANO
ARANO

ARANO. Joxemari Legarreta.

Gerra kontuak eta gerra ondorengo bizimodua.

Gu Bitoritik etorri giñen Miranda, hor egun batzu pasa genittun da gero ze, Billarrealko frente, ta hortik e, berriz, hor hillabeteen bat eo pasa ta, berriz e eaman giñuzen hortik zee, Asturiase. Han izandu genitun atake goorak, ta egualdi txarrak eta, oso gaizki ibilli giñen. Geo eaman giñuzen Oviedo bertaa, ta, han eondu giñen ia sei hillabetian, geo handik tenientia destinetu zeen beste batalloi batea ta harrekin batian joan nitzen ni re, asistente eoten nitzan da, ta handikan hura formatu ero zeatu zan arte eondu giñan zeian Riojan. Riojatikan berriz joan giñan Zaragozako frente, ta handik Teruele, ta Teruelgo atakiak han pasa genittun, ta geo Terueletikan Huescako abantzia, Huescatikan, hor ya Kataluñako mugara ero abantzatu giñun bastante, ta han, herittu niñuten ni ta, jaso niñuten zera Ainsa, lenbizikoa, geo Boltaña, Boltañatik Huesca, Huescatik Zaragoza, ta Zaragozatic Donostira, ta Donostin pasatu nittun sei hilabete, ta azkeneko hamabost egunak Zarautzen...

Guetzat, guetzat festa izan zen hura esateko, dena, tabernatik sartu ezkeo baxo erdik eo eaten genittun ta denak paatzen zizkiuten. Handikan berriz joan nitzen, alta eman tziatenian, zeian, Pilarika eunian, zera, Binefar, Binefartiken e oaindik aurrerao zeon, zea, gure baterie ta, haraxe joan nitzen, handikan berriz, (---) Kataluñako abantzia tokatu zitzagun, ta han ibilli giñen, Kataluña dena bukatu zen arte, Andorrako muga arte.

Gero handikan eaman giñuzen zeera, Guadalajarako frente, ta ya han azkeneko ofensiba ero dena preparatuba zeon, ta zetu in zen, errendittu in tzien ordun. Gui gerra hantxe bukatu zitzagun, handik joan giñen, Guadalajaratikan oiñez, oaindikan berriz e eztakiu bi-hiru eun eo pasa genittun zera, Cuenca, Cuencako parte, nola zen herriya, Tarancon, Tarancon, Tarancondik eaman giñuzen zera, Almendros, handik ya berriz Valentzira, Valentziko zeian, Gandia, Gandian bukatu giñun. Handik eman ziuten etxea etortzeko zea, pasia, ya hogeitamabi hilabeten burura, nee permisuaikin etorri nitzen zeatikan e, Asturiastik etorri nitzen, da, Kataluñako frentia bukatu zenian e bai, biño hamabi eun biño gehio etziuten beiñe e ematen... bai jauna...

– *Eta gerra bukatu zenean gustora etxera.*

– *Bai, bai, gerra bukatu zenian gu beste iñon gehio ezkiñula gaizki ezer e*

pasa bihar da, hola berriz e len bezelaxe, hementxe etxian. Hasi nitzen Zentralian, ordun aitta jubilatzen da, geoztikan gue bizimodua hementxe izandu da, gaizki eo ongi.

– Beti Zentralian?

– Bai, bai, hirurogei urte arte, bai, hogeita hamahiru urte pasa nittun Zentralian, ta, jubilatzen nitzan. Geo izandu nun zeakin, lurra maneatzeko moto-cultor o katxarro horrekin, zera, azidentea ta, geoztik bastoi batekin hemen ibiltzen naz ahal duan bezela... holaxe.

– Zentralean zer egiten zenuten?

– Zentralian eon, jenealian eon, egualdi onian da, zeai errepetu, alternadoriai errepetu, ta nola ai zian eo, ta azkeneko enpresak hartu zun, zeak, enpresa ttiki bat zen, Hernaniko kurtido fabrika, ta harrentzat ematen giñun indarra, ta erreguladoreik e, ez giñun automatikoik. Ta eskuz erregulatu bihar izaten giñun, hartan lan puxka izaten giñun eh?, biño gaiñekuan beste zeakin, distribudorakin, eo lberduerokin aittu giñen bittarte etzen holako zeik izaten, konpleto, ta hantxe, egualdi onian, bate kuidoik ez, baña egualdi txarrian beti tximistan eo tormentan beldurra, eo hola, ta geo azkeneko kurtidoraantzat eondu giñen denboa guziin, linean aberia bazen konpontzea geok joan bihar izaten giñun, da jenealian egualdi txarrakin izaten dia aberiak e eta, hola, holaxe pasa zen gue denboa...

– Zer egiten zenuten, zentralean lana eta gero etxean?

– Bai, bai, bai, etxian lanian geldittu ta korrika presaka ordutako ailleatzeko hara, askotan, da handik etorri ta etxia re bai, behiak ere bagenittun, ardiak ee bai, ta denekin segi hortxe, ahal zen bezela.

– Eta familia aurrera ateratzeko hainbeste ematen al zuen zentral horrek?

– Gutxi zen, gutxi zen, biño baserrin nik uste gutxio ateatzen zela oaindikan. Gutxi, beti jornala minimua ta, mateko bildurra haundiya izaten zen...

...beti eziña ordun, ordun eziña izaten tzen, ta ez gu bakarrik, asko, ordun ezpaitzen oain bezela diruik izaten da, al tzen bezela,

...oaiñ jendia hobeki bizitzen da, biño hemengo baserrik izatia ya bukatu da, eztu, iñork eztu lanik in nahi eta,

...klaro, zarrak zenbateño gauza gera, zeozer beti aitzen ga lanian, biño ez hola fuerte aitzeko, ta gaztiak berriz gauza dianak, pues, alde in, hok e ieltsero ttuk ta, haik joaten dia ta, erraiñakin hementxe, ta bi ume kaxkarrokin, bata hamahiru urtekua, bestea beetzikua, hokintxe. ta geo alabai re launtzen diou, barrian da, bata bestiai launduz hementxe, biño ongi, bai, bai, oan bezela beñe ezkea bizi izandu, zer ba, ezkondu giñanian, ehun durokon bat ordun

*irabaziko zun, ehun duro o zer, zer zemat?, ez asko gehio aizu, ez asko gehio,
ta zer tzen hura?, ta al tzunak al tzun bezala o, etxeko txerri hilda ta, al tzen
bezela bizitzen zen ordun jendia, biño oain nola, oain ongi bizi dire, ez diru
askookin, biño bai ongi bizi...*

ARANO. Joxemari Legarreta

Gerra kontuak eta gerra ondorengo bizimodua

Gu Bitoritik etorri ginen Mirandara, hor egun batzuk pasa genituen eta gero zera, Billarrealgo frentera, eta hortik ere berriz, hor hilabeteren bat edo pasa eta, berriz ere eraman gintuzten hortik zera, Asturiasera. Han izan genituen atake gogorak, eta eguraldi txarrak eta, oso gaizki ibili ginen. Gero eraman gintuzten Oviedora bertara, eta han egon ginen ia ¹ sei hilabetean. Gero handik tenientea destinatu zuten beste batailoi batera eta harekin batean joan nintzen ni ere, asistente egoten nintzen eta, eta handik hura formatu edo zertu zen arte egon ginen zerean, Errioxan. Errioxatik berriz joan ginen Zaragozako frentera, eta handik Teruelera, eta Teruelgo atakeak han pasa genituen, eta gero Terueldik Huescako abantzea, Huescatik, hor jada Kataluniako mugara edo, abantzatu genuen bastante, eta han, heritu ² ninduten ni, eta jaso ninduten zerera Ainsara, lehenbizikoa, gero Boltañara, Boltañatik Huescara, Huescatik Zaragozara, eta Zaragozatik Donostiara. Eta Donostian pasatu nituen sei hilabete, eta azkenengo hamabost egunak Zarautzen...

Guretzat, guretzat festa izan zen hura esateko, dena, tabernatik sartuz gero baso erdiak edo edaten genituen eta denak pagatzen zizkiguten. Handik berriz joan nintzen, alta eman zidatenean, zerean, Pilarika egunean, zerera, Binefarrera, Binefartik ere oraindik aurrerago zegoen, zera, gure bateria eta, haraxe joan nintzen, handik berriz, (---) Kataluniako abantzea tokatu zitzaigun, eta han ibili ginen, Katalunia dena bukatu zen arte, Andorrako muga arte.

Gero handik eraman gintuzten zerera, Guadalajarako frentera, eta jada han azkeneko ofentsiba edo dena preparatua zegoen, eta zertu egin zen, errenditu egin ziren orduan. Guri gerra hantxe bukatu zitzaigun, handik joan ginen, Guadalajaratik oinez, oraindik berriz ere ez dakigu bi-hiru egun edo pasa genituen zera, Cuenca, Cuencako partean, nola zen herria?, Tarancon, Tarancon, Tarancondik eraman gintuzten zerera, Almendrosera, handik jada berriz Valentziara, Valentziako zerean, Gandian, Gandian bukatu genuen. Handik eman ziguten etxera etortzeko zera, pasea, jada hogeitamabi hilabeteren burura, nere permisoarekin etorri nintzen zeratik, Asturiastik etorri nintzen, eta Kataluniako frentea bukatu zenean ere bai, baina hamabi egun baino gehiago ez ziguten behin ere ematen... bai jauna...

- Eta gerra bukatu zenean gustora etxera.
- Bai, bai, gerra bukatu zenean guk beste inon gehiago ez genuela gaizki

(1) Kasik.

(2) Zauritu; gaztelerako «herir» hitzetik zuzenki hartua.

ezer ere pasa behar eta, horrela berriz ere lehen bezalaxe, hementxe etxean. Hasi nintzen Zentralean, orduan aita jubilatzen zen eta, geroztik gure bizimodua hementxe izan da, gaizki edo ongi.

– Beti Zentralean?

– Bai, bai, hirurogei urte arte, bai, hogeita hamahiru urte pasa nituen Zentralean, eta jubilatzen nintzen. Gero izan nuen zerakin, lurra maneiatzeko motokultor edo katxarro horrekin zera, azidentea eta geroztik bastoi batekin hemen ibiltzen naiz ahal dudan bezala... horrelaxe.

– Zentralean zer egiten zenuten?

– Zentralean jeneralean egon, egualdi onean eta, zerari erreparatu, alternadorei erreparatu, eta nola ari ziren edo, eta azkeneko enpresak hartu zuen, zerak, enpresa txiki bat zen, Hernaniko kurtido fabrika, eta harentzat ematen genuen indarra. Eta erreguladorerik ere, ez genuen automatikorik, eta eskuz erregulatu behar izaten genuen, hartan lan puxka izaten genuen, eh?, baina gainerakoan beste zerarekin, distribuidorekin, edo Iberduerokin aritu ginen bitarte ez zen holako zerik izaten, konpleto, eta hantxe, eguraldi onean, bate kuidorik ez, baina eguraldi txarrean beti tximistaren edo tormentaren beldurra, edo horrela, eta gero azkeneko kurtidorarentzat egon ginen denbora guzian, linean aberia bazen konpontzera gerok joan behar izaten genuen, eta jeneralean eguraldi txarrarekin izaten dira aberiak ere, eta hola, holaxe pasa zen gure denbora...

– Zer egiten zenuen, zentralean lana eta gero etxean?

– Bai, bai, bai, etxean lanean gelditu eta korrika presaka ordutarako ailegatzeko hara, askotan, eta handik etorri eta etxean ere bai, behiak ere bagenituen, ardiak ere bai, eta denekin segi hortxe, ahal zen bezala.

– Eta familia aurrera ateratzeko hainbeste ematen al zuen zentral horrek?

– Gutxi zen, gutxi zen, baina baserrian nik uste gutxiago ateratzen zela oraindik. Gutxi, beti jornala minimoa eta, emateko beldurra handia izaten zen...

...beti ezina orduan, orduan ezina izaten zen, eta ez gu bakarrik, asko, orduan ez baitzen orain bezala dirurik izaten eta, ahal zen bezala...

... orain jendea hobeki bizitzen da, baina hemengo baserriak izatea jada bukatu da, ez du, inork ez du lanik egin nahi eta...

...klaro, zaharrak zenbateraino gauza gara, zeredozer beti aritzen gara lanean, baina ez hola fuerte aritzeko, eta gazteek berriz, gauza direnek, pues, alde egin... hauek ere igeltseroak dituk eta, haien joaten dira eta, errainarekin hementxe, eta bi ume kaxkarrokin, bata hamahiru urtekoa, bestea bederatzikoa, hauekintxe. Eta gero alabari ere laguntzen diogu, barrean³ eta, bata besteari lagunduz hementxe, baina ongi, bai, bai, orain bezala behin ere ez gara bizi izan, zer ba, ezkondu ginenean, ehun durokoren bat orduan irabazi-

(3) Tabernan; ostatuan.

ko zuen, ehun duro edo zer?, zer zenbat?, ez asko gehiago adizu, ez asko gehiago, eta zer zen hura?, eta ahal zuenak ahal zuen bezala edo, etxeko txerria hil eta, ahal zen bezala bizitzen zen orduan jendea, baina orain nola, orain ongi bizi dira, ez diru askorekin, baina bai ongi bizi...